



KULTURA JARDUNLEKUETAKO COVID-19 PROTOKOLOA ETA SEGURTASUN-NEURRIAK

Ondorengo orrialdeetan jasotzen diren neurriak etengabe berrikusten ari dira, COVID-19ri buruz indarrean dauden araudiak eguneratzearen eta egokitzearen ondorioz. Osasun-agintarien gomendioak eta irizpideak jarraituz, eta arriskuak identifikatu eta aztertu ondoren, babes-neurri hauek ezarri ditugu Kulturako zerbitzu eta jardunleketan.

Garbiketa- eta desinfekzio-neurriak esparru osoan areagotuko dira (leketan, tresnetan eta/edo materialetan). Bastero Kultur Etxean, Urigain Kultur Etxean, Galardi Haur Eskolan, Musika Eskolan, kultur lantegietan eta Olagain zentroan.

Kulturako eta Hezkuntzako zerbitzu eta jardunleketako higiene- eta prebentzio-neurriak

Garbiketa- eta desinfekzio-neurriak areagotu egingo dira esparru osoan (tokiak, tresnak eta/edo materialak). Bastero kulturgunean, Urigain Kultur etxean, Galardi Haurreskolan, Musika Eskolan, Kultur tailerretan, liburutegian, fonotekan, Extremadura eraikinean eta Olagain zentroan.

- Seinale, mezu eta kartel espezifikoak jarri dira, portaera, segurtasun-distantzia, higiene-neurriak, edukierak, igarotzeko eremuak eta abar gogorarazteko.
- Garbiketa- eta desinfekzio-lanak areagotu egin dira, laneko higiene eta osasunaren arloan eskudun diren agintarien gomendioetan oinarrituta.
- Gel hidroalkoholikoak, paperezko zapiak eta erabilitako materiala botatzeko ontzi espezifikoak instalatu dira leku estrategikoetan, hala nola harreran, hainbat leku, gela eta zerbitzutako sarreretan.



BASTERO KULTURGUNEA

Kulturguneko jendaurreko ordutegia

Aurretiko hitzorduarekin: astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 19:30era eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara. Horretarako, derrigorrez aldeztu aurretik hitzordua hartu beharko da.

- Hitzordua hartzeko, deitu 943 303540 telefonora edo bidali emaila basteroataria@andoain.eus helbidera.
- Nahitaezkoa da leihatilara musukoa jarrita etortzea.

Ikuskizunak eta zinea

Auditorioa eta ekitaldi aretoa garbitzea, desinfektatzea eta egokitzea

- Ekitaldi bakoitzaren aurretik, auditorioa eta ekitaldi aretoak garbitu eta desinfektatuko dira, eta arreta berezia jarriko zaie ateetako heldulekuei, mahaien gainazalei, aulkietako beso-euskarriei, komunei eta, oro har, pertsona ezberdinek maiz uki ditzaketen osagaiei.
- Erabiltzaileek erabili ditzaketen espazio guztiak egunero garbituko dira, edota erabilera-maiztasunaren eta jende-eterriaren arabera.
- Gel-banagailu hidroalkoholikoak jarriko dira sarreran eta komunetan, eta eskuak garbitzea nahitanahiezkoa izango da.
- Aretoa ekitaldi bakoitzaren ondoren aireztatu egingo da atek zabalduz, airea ahalik eta gehien berri dadin.

Jardunleketara sarbideak eta joanetorriak

- Ikuskizuna hasi baino 30 minutu lehenago irekiko dira atek. Puntualtasuna eskatzen da, jendea bere eserleketara erraz joan dadin.
- Sarreran zein aretoen eta komunen sarbideetan segurtasun-tarteari eusteko, lurrean argi eta garbi identifika daitezkeen markak jarriko dira. Auditoriora sartzekoan,



sarrera bikoitiak dituztenak eskuinaldetik egingo dute eta sarrera bakoitia dutenak ezkerraldeetik.

- Ikuskizunetara eta zinera sarrera goiko atetik izango da, eta irteera aretoko langileek jakinaraziko duen atetik, aintzat hartuz ikusleak non dauden eserita; bien bitartean, ikusleak euren eserleketan eserita egongo dira.
- Gomendatzen da komunak ahal bada ez erabiltzea, eta erabili behar badira, azkar eta arin erabili eta ondoren eskuak ondo garbitzea.

Norberaren osasuna eta higiena

- Jardunleku edo instalazioen barnean derrigorrezkoa izango da musukoak erabiltzea.
- Sarreran eskuak gel-hidroalkoholikorik garbitu beharko dira.
- Pertsonen arteko segurtasun-tarteari eutsi behar zaio eta ezarritako seinaleei jaramon egin behar zaie.
- Debekatuta dago jatea eta edatea.
- Azken orduko segurtasun neurririk balego Kultura eta Hezkuntza lantsailak jakinaraziko ditu eta bete egin beharko dira.

Erakusketak

- Musukoa erakusketa osoan zehar erabiltzea derrigorrezkoa izango da eta sarreran eskuak gel-hidroalkoholikorik garbitu beharko dira.
- Erakusketako ibilbidean zehar pertsonen arteko tarte egokia bermatzeko ibilbidea ezarriko da. Osagai grafiko edo eskultura desberdinak daudenez, bisitan zehar metro eta erdiko distantzia pertsonala errespetatu beharko da.
- Taldeak oso handiak baldin badira gehienez ere 10 lagunentzako talde-bisita baimenduko da. Gainontzekoek Bastero eraikinetik kanpo itxaron beharko dute haien txanda izan arte.
- Segurtasun eta osasun irizpideak betetzeko edukieraren aforoa %60era murriztu behar denez, erakusketa aretoan 93 pertsonako aforoa izango da gehienez.



Sarrera-salmenta

- Pertsona bakoitzeko gehienez 5 sarrera banatuko dira.
- Sarrerak modu elektronikoa erostea gomendatzen da. Urriaren 10tik aurrea erosi ahalko dira.
- Sarrera telefono mugikorrean ekartzea gomendatzen da, sarrera inprimatu behar ez izateko.

Aurrez aurreko salmenta

- Lehenasuna izango dute bazkideek sarrerak eskuratzerakoan.
- Basteroko leihatila ostegunetan egongo da irekita: 10:00etatik 13:00etara/ 16:30-19:30
- Beste aukera da, ikuskizuna hasi eta ordubete lehenago Basteroko txarteldegian erostea. Txarteldegian salgai egongo dira aurreko egunetan saldu ez diren sarrerak.

Internet bidez

- Salmenta Internet bidez egingo da webgune hauetan:
- Informazio gehiago: 943303540

Antzerkia, musika eta dantza:

https://tickets.kutxabank.es/#/es/ver-recinto/BA@Janto_KB

Zinea:

<https://cinesbastero.sacatuentrada.es/eu>

Ikuskizunak eta zinea bertan behera

- Koronabirusaren bilakaeraren arabera eta egoerak hala eskatzen badu, ikuskizuna bertan behera utzi ahal izango da, eta iragarritako datak, ordutegiak, egitarauak eta antzezleak aldatu. Ekitaldia bertan behera uzten denean edo atzeratzen denean bakarrik itzuliko da dirua.
- Kasu horietan sarrerak itzultzeko mezu elektronikoa bidali beharko da honako helbidera: basteroataria@andoain.eus



Basteroko aretoen erreserba

Basteroko aretoak erreserbatzeko www.andoain.eus webgunean sartu eta eskaera orria bete beharko da. Eskaera orriarekin batera, Bastero erabiltzeko segurtasun protokoloa sinatu beharko da eta kultura@andoain.eus helbidera bidali.

Kultura eta Hezkuntza sailak erreserba hori aztertu eta berretsi egingo du, eta horrekin batera bete beharreko baldintzak eta arautegia bidaliko zaio erreserba egin duen arduradun edo ordezkariari.

Segurtasun eta osasun irizpideak betetzeko edukieraren aforoa % **60era murriztu** beharko da.

- Auditorioan **300** eserleku.
- Ekitaldi aretoan **120** eserleku.
- Erakusketa aretoan **93** aforo

Hala ere, eserlekuen arteko tartea gorde behar denez aforo hauek murrizketa gehiago izan ditzakete.

URIGAIN KULTUR ETXEA

Urigain etxeke aretoetan egonaldi seguruak eskaini ahal izateko Andoaingo Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailak hainbat neurri ezarri ditu.

- Urigain erreserbatzeko www.andoain.eus webgunean sartu eta eskaera orria bete beharko da. Eskaera orriarekin batera, Urigain erabiltzeko segurtasun protokoloa sinatu beharko da eta kultura@andoain.eus helbidera bidali.
- Kultura eta Hezkuntza sailak erreserba hori aztertu eta berretsi egingo du, eta horrekin batera bete beharreko baldintzak eta arautegia bidaliko zaio erreserba egin duen arduradun edo ordezkariari.



Urigainera etorri aurretik:

- Nahitaezkoa da erabili nahi den aretoa aurretik eskatu eta gordetzea.
- Erabil daitekeen gunek bakarrik areto nagusia da. Segurtasun eta osasun irizpideak kontuan hartuta ezarritako aforoa dela-eta, gehienez ere 16 pertsona sar daitezke. Inolaz ere, ezingo dira kopuru horiek gainditu.
- Erabiltzaileak ezingo dira bertaratu sukarra edo COVID-19ari lotuta egon litezkeen ondorengo sintomak baldin badauzkate: eztula, arnasa hartzeko zailtasuna, etab. Erabiltzaileak ezingo dira bertaratu sintomak dituen pertsonaren batekin harreman zuzenik izan badute.

Egonaldian zehar, nahitaezkoa da:

- Nahitaezkoa izango da musukoaren erabilera. Gel hidroalkoholikoak jarriko dira sarreran eta sartu aurretik eskuak garbitzea nahitaezkoa izango da.
- Pertsonen arteko segurtasun-tartea 2 metrokoa izan beharko da.
- Egonaldi bakoitzaren ondoren aretoa eskatu duen erakunde edo elkarteak, aretoa garbitu eta desinfektatu egingo du, eta arreta berezia jarriko zaie ateen heldulekuei, mahaien gainazalei, aulkien beso-euskarriari, oro har, pertsona ezberdinek maiz uki ditzaketan osagaiei. Ahal den heinean, azalera ez ukitzea eta eskuak aldiro garbitzea gomendatzen da.
- Guneaz aparteko beharrak baldin badaude eta erabiltzen badira, horiek guztiak desinfektatu egin beharko dira.
- Erresebaren ordutegia bete beharko da.
- Ezarritako seinaleei jaramon egin beharko zaie.
- Komuna ahal bada ez erabiltzea gomendatzen da, baina erabili behar izanez gero, azkar erabili, eta ondoren eskuak garbitzea eskatzen da.
- Azken orduko segurtasun neurriak baldin bada Kultura eta Hezkuntza sailak jakinaraziko du eta bete egin beharko da.

ANDOAINGO UDAL-LIBURUTEGIA

- Mailegu zerbitzua hitzordu bidez izango da.



- Liburutegira etorri aurretik mailegu eskaera egin behar da www.liburubila.euskadi.eus katalogoan. Liburuzaina jarriko da irakurlearekin harremanetan eskatutakoa noiz jasoko duen zehazteko.
- Maileguan hartu nahi dena liburutegian bertan hautatzeko 943 300 615 telefonora deitu edo 606 275 862 Whatsappera idatzi beharko da.
- Liburutegiaren jendaurreko ordutegia astelehenetik ostiralera 10:00-13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara izango da.
- Fonotekak itxita jarraituko du. Halaber, irekitzen bada jakinaraziko da.
- Barnean derrigorrezkoa izango da musukoak erabiltzea.
- Sarreran eskuak gel-hidroalkoholkoz garbitu beharko dira.
- Pertsonen arteko segurtasun-tarteari eutsi behar zaio eta ezarritako seinaleei jaramon egin behar zaie.

KULTUR IKASTAROETAN ETA OLAGAINEN

- Ikastaroetarako sarrerek eta irteerak modu mailakatuan egingo dira, antolatzaileen jarraibideei jarraituz.
- Jardunleku edo instalazioen barruan derrigorrezkoa izango da musukoak erabiltzea.
- Pertsonen arteko segurtasun-tarteari eutsi behar zaio eta ezarritako seinaleei jaramon egin behar zaie.
- Erabiltzaile bakoitzak beti mahai bera izango du ikasgelan dagoen bitartean.
- Ereku komunak edo pasabideak ahalik eta gutxien erabiliko dira, leku batzuetatik besteetara joan eta etortzeko bakarrik, eta ez bestelako jardueretarako (hitz egiteko, kafea hartzeko, etab.).
- Lokalen aireztapen naturala eta mekanikoa areagotuko dira, barruko airea berritzen laguntzeko.
- Gela bakoitzak gel hidroalkoholikoa izango du eskuak garbitzeko eta desinfektatzeko, baita ontzi edo paperontzi espezifiko bat ere erabili eta botatzeko materialarentzat (paperezko zapiak, ...).